

HEMENDIK

ZINELEKU Egonaldi laburra

proiektuaren garapena + *pitching saioa*

Rencontres sur les docks 2021 |

ekainaren 23tik 25era

**Fikziozko film edo dokumental proiektu bat duzu?
Laburra ala luzea?**

**Ekoiztetxe bat edo ideien garatzeko eskukaldi bat
xerkatzen duzu?**

**Zatoz zure proiektua garatzera eta 2021eko “Ren-
contres sur les docks” festibaleko pitching saion
profesionalen aurrean aurkeztu ezazu!**

2021eko “Rencontres sur les docks” festibala kari, Gaztefilm Fest eta Zukugailuarekin partaidetzan, Atalante zinema-gelak zinemagile berriei zuzenduriko jarduera profesionalak antolatzen ditu.

Hiru egunez, 2021eko ekainaren 23tik 25era, hautagaiak bere proposamena garatuko du zinema arloko profesionalen laguntzarekin. Prozesua bururatzean, lurraldeko (Nafarroa, Euskadi eta Akitaniako) ekoizleen aurrean aurkeztuko du bere proiektua, ekainaren 25ean, ostiralez, pitching saio batean.

Filmilm luze eta laburrak, dokumental zein fikzioak onartuko dira. Dosierria euskaraz, frantsesez edo gazteleraz idatzi daiteke.

Informazio gehiago eskuratzeko edota dosierria bidaltzeko:

koord@zukugailua.eus

L'ATALANTE
CINÉMA VO · BISTRO · EXPO

GAZTEFILM FEST

ZUKUGAILUA
· LA CENTRIFUGEUSE ·





Bidali zure dosierra osaturik, emailez, pdf bakar batean (gehienik 25Mb-koa) helbide honetara:

koord@zukugailua.eus

Dosierra ondoko elementuekin osatu behar da :

- autorearen biografia eta harremanetarako informazioak (email eta telefono zenbakia) (gehienik 650 karaktere)
- laburpen bat (gehienik 400 karaktere)
- sinopsia garatua (gehienik 4000 karaktere)
- intentzio nota (gehienik 3000 karaktere)
- erreferentzia bisualak
- orain arte eginiko filmak ikusteko estekak (egongo balira).

Oharra: Emandako karaktere mugak, espazioak kontutan hartzen ditu

Dosierra euskaraz, frantsesez edo gazteleraz idatzia izan daiteke.

Ezinbestekoa da, egonaldiaren datetan, ekainaren 23tik 25era hots, hautagaia libre izatea.

Dosierra maiatzaren 26a, gauerdia, baino lehenago bidali behar da.

Zinema arloko profesionalak osaturiko batzorde batek irakurri eta analizatuko ditu hautagaitzak. Arreta berezia emanen zaie autore sortuberri eta loratzen daudenei, generoari paritateari eta bertako ordezkari (Iparraldeko sorkuntza garatzeko). 6-8 proiektu hautatuko dira.

Hiru eguneko egonaldiaren ondotik, bi proiektuk 1000 euroko laguntza jasoko dute, **Kanaldude sariaren** bitartez.

EGUTEGIA

Apirilaren 28a: prentsurrekoa eta deialdiaren idekiera

Maiatzaren 26a: deialdiaren bukaera

Maiatzaren 27tik ekainaren 6ra: dosierren irakurketa

Ekainaren 7a : Deialdiaren ebazpena

Ekainaren 23 eta 24ean (“Rencontres sur les docks” festibalean): tutoreekin eta buruz-burukako lan egunak

Ekainaren 25a : pitching saioa eta ekoizleekin topaketak

EGONALDIA NOLA IRAGANEN DA

Parte hartzaileak jarduera profesionalen egunetan Baionako René Cassin lizeoko barnetegian izanen dute ostatua, banako geletan. Pentsio osoan egonen dira, biz-pahiru gau (arribatze eta joatearen araberan).

Lan egunak pertsonalki antolatuak izanen dira Garbiñe Ortega eta Jokin Etcheverria tutoreekin, 9:00etatik 17:00etara. Egonaldi lekuan, Baionako Arte eskolan (Cité des Arts), bazkaltzen ahalko dute.

Parte hartzaileek “Rencontres sur les docks” festibaleko saio eta topaketa guziak ikusteko parada izanen dute.

Baionara joetako eta bueltatzeko garraioa parte hartzailearen erantzukizuna izanen dira.

Egonaldia, proiektuko pertsona bakar batentzako da.

JARDUERA PROFESIONALAK | Rencontres sur les docks 2021

Ekainaren 25ean, egonaldi bukaeran eta proiektuen aurkezpenen ondotik, mahai inguru bat izanen da, “**emakumeak euskal zineman**” inguruan. HEMEN kolektiboa ezagutzeko aukera izango dugu, erabakitzeke instantzietan parekotasuna balaratzeko ekintzez hitz egingo dugu eta arazo horrek sor ditzakeen gai estetikoak buruz gogoetatu.

ANTOLAKETA

L'Atalante Baionako zinema independentea da. Hiru pantaila ditu, ostatu bat eta hiriari begira espazio irekiak. Bere programazioari balioa emateko ekintza ugari garatzen ditu. Publiko gazterekin lan egiten du asko: ikasle, haur, nerabe eta gazteekin. Hauek filmen aniztasunean, kuriositatea piztuko duten gaitasunari eta eramaten dituzten altxor artistikoetan sentsibilizatuz. Arreta berezia ematen zaio mugaz-gaindiko harremanen garapenari, lurraldetik baliabideak eta emulazioa azaldu ditezten. "Les Rencontres sur les docks" Atalanteko urteko festibala da.

GaztefilmFest haurrentzako eta nerabeentzako Gasteizeko film jaialdia da. Par-taidetza bat abiatu dute Atalantekin mugaren bi aldeetan proiektuak garatzeko. Horietarik bat, formakuntza eta sorkuntzarako ZINELEKU proiektua da. Proiektu honetan Euskal Herriko xoko ezberdinetan egonaldi, proiektu garapenerako, euskarazko idazketa eta sorkuntzarako modulu ezberdinak antolatu nahi dituzte.

Zukugailua elkartearen helburua, euskal zinema eta ikus-entzunezko sormena sostengatzea eta bultzatzea da. Profesional eta perfil ezberdinak elkartuz (errealizadore, ekoizle, banatzaile, teknikari, zinema-gela kudeatzaile...), euskal zinemaren sostengatzeko, garatzeko, ekoizteko eta banatzeko baliabideak sortu nahi ditu, besteak beste sorkuntza gaztea, lekuko profesionali formakuntza profesionaleko sarbidea erraztuz eta gazteak sorkuntza zinematografikoari sentsibilizatuz.

Hiru egituren arteko sinergiak agerian uzten du loturak eraikitzeo eta Ipar Euskal Herriko zinema sektoreak beharrezkoa duen emulazioa sortzeko gogoia, Hego Euskal Herrian jadanik bizi-bizirik dagoen sektorearen integrazioa gabe ezin dena lortu. Horrela ditugu helburu amankomunak finkatuko, artea eta kulturaren ikuspegi independente, kontzientziatu eta anbiziotsu baten inguruan.

TUTOREAK

Garbiñe Ortega

Punto De Vista jaialdiko (Iruñea) zuzendari artistikoa eta programatzailea, Garbiñe Ortegak nazioartean kolaboratzen du Film Society of Lincoln Center-ekin (New York), Tate Modern-ekin (Londres), National Gallery of Art-ekin (Washington) eta Pacific Film Archive-rekin. (Kalifornia). Programazioa zuzendu zuen Ambulanten eta Zineleku, Euskal herriko zinema formakuntza proiektua sortu du. Ekoizle moduan, Lois Patiño, Virginia García del Pino, Nicolás Pereda y Camila J. Donoso bezalako egileen filmak ekoiztu ditu.

Jokin Etcheverria

Ekoizlea, zuzendaria eta kazetaria, La Fidèle Production ekoiztetxearen buru da. Arreta berezia eskaintzen dio euskal zinemaren koprodukzioari eta biharko talentuen agerpenari. Dantza ondoren (2017), La Fidèle-k duela gutxi nazioarteko beste 3 koprodukzio ekoitzi ditu: Agur Etxebeste (2019), Nora (2020) eta Akelarre (2020).

KOLABORATZAILEAK:



Lycée René CASSIN



Bayonne



PARTAIDEAK:



ZINELEKU

PROIEKTUAREN JARRAIPENA



- SUSTRAIAK

Euskarazko sorkuntza laborategia:

2021eko ekainaren 20etik 22ra Garaion (Araba, Euskadi)

Hiru eguneko egonaldia, 6 parte hartzaileentzako, Harkaitz Cano eta Katixa Agirrerekin. Euskarazko ideia narratiboak edota gidoiak lantzeko aukera paregabea!

Izen emateak irekita!

- IKUSBIDEAK

Sormen tailerrak

Astebetez, gazte talde batek diziplina anitzeko tailerrak egingen dituzte zinema arloko profesionalekin (zinemagile, bideo-egile, teknikari etab.) esperientzia amankomun bat partekatuz. Teoria eta praktika lotzea da helburua, film labur zenbaiten errealizaziora iristeko. Tailerrez gain, gonbidatutako artistek haien obrak aurkeztuko dituzte, aktibitate eta proiektzio publikoz osaturiko programazio baten baitan.

ZIRRIBOROAK ETA GERO proiektuan eginiko testuak, oinarritzat hartuko dira ekoitziko diren film laburren gidoiaren idazketetan.

Tailer hoiaren formatu ibiltari bat ere aurreikusia da, Araba, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriaren artean. Proiektu hau Gaztefilm Fest, Iruñeko Zinetica festibala eta Atalante zinema-gelaren artean antolatuko da.

www.zineleku.org

